

BALDINTZAZKO PERPAUSEN EGITURA

Baldintzazko perpausak bi zati dituzte: baldintza (BA- marka daramana) eta ondorioa.

BALDINTZA MOTAK

Hiru baldintza mota bereizten dira euskaraz

1.- Ez-alegiatzko baldintza (**erreal**a). Oso posible da baldintza gertatzea eta, hortaz, baita ondorioa ere:

Egoera: Zerua begiratzuz gero, hodei beltzak ikusten ditugu.

Euria egiten badu, blai eginda helduko gara etxera.

Egoera: Ana oso ikasle argia da. Normalean langilea da baina azken aste honetan ez du behar beste lan egin.

Saiatzen bada, Anek ikasketak amaitzea lortuko du.

-T(Z)EN + BA- + -ORAINALDIA, -KO + ORAINALDIA

2.- Orain-geroaldia (**hipotetiko**a). Baldintza nekez bete daiteke; hortaz, ondorioa ere nekez gertatuko da.

Egoera: Zerua begiratzen badugu, oskarbi dago.

Euria egingo balu, blai eginda helduko ginatke etxera.

Egoera: Ana oso ikasle argia da, baina baita oso alferra ere; ez du piperrik jotzen.

Saiatuko balitz, Anek ikasketak amaitzea lortuko luke.

-KO + BALDINTZA, -KO + ONDORIO ORAINA

3.- Iraganekoa (**irreal**a). Baldintza iraganean gertatu ez den egoera hipotetiko bat da eta, hortaz, ondorioa ere ez da gertatu.

Egoera: Atzoko kontuaz ari da; atzo ez zuen euririk egin.

Euria egin (izan) balu, blai eginda helduko ginatkeen etxera.

Euria egin (izan) balu, blai eginda helduko ginen etxera.

Egoera: Ana oso ikasle argia da, baina baita oso alferra ere; ez zuen piperrik jo eta, beraz, suspenditu egin du.

Saiatu (izan) balitz, Anek ikasketak amaitzea lortuko zukeen.

Saiatu (izan) balitz, Anek ikasketak amaitzea lortuko zuen.

(IZAN) + BALDINTZA, -KO + ONDORIO IRAGANA
(IZAN) + BALDINTZA, -KO + IRAGANA